

KILOMETROAK 2010 >

< 6. ORRIALDEAN HASTEN DA

Hori dela eta, goiz osoa erratzak eta palak eskuartean hartuta zaborrak biltzen igaro zuten neskek. Baina, eguerdian zeregin horiek alde batera utzi eta dantzari arropak jantzi zituzten Lopene plazan gainerako Alkartasuna taldekoekin euskal dantzen ikuskizuna eskainitzeko.

BOST GUNE EZBERDIN

Familia osoarentzako programa

Ibilbidea bost gunetan banatu zuten antolatzaileek eta bakoitza publiko bati zuzendua prestatu zuten. Lehenbizikoan, esaterako, txikientzako aktibitatez bete zuten; haur jolasak, marrazketarako gunea, dantza ikuskizunak...

Arrakasta gehien, salto egiteko oheek lortu zuten, ehunka ume ausartu baitziren gorputzari soka lotu eta jauzika hastera. Hala ere, gaztetxoek nahiago izan zuten marrazten gelditu. Bi urte eta erdiko Pasai Antxoko Junek, adibidez, behiak margotzen eman zuten goiza amona Arantzarekin eta "oso ondo" pasatu zuela adierazi zuten.

Metro eskasetara, Ataundik joandako talogileen koadrila jo eta su aritu zen arto opilak egiten. "Kilometroak Santo Tomas eguna ez den arren", Mila Aldasoroaren aurreikuspenak positiboak ziren goiz erdian: "Eguraldi ona egiten badigu 1.000 talo inguru saltzera ailegatu gaitzke".

Gipuzkoa osotik etorritako artisauek ere ikus zitezkeen erdigunean bitxi, jolas, jaki eta gainerakoak saltzen. Ziurrenik, hauek ere atzo ez zituzten urteko salmenta onak lortuko, baina giro paregabeaz gozatu ahal izan zuten. Izan ere, kalean egote hutsa festan parte hartzeko beste modu bat izan zen dultzaineroak, joaldunak, Tirri Tarra fanfarrea, Deiadar eta Alkarkide txarangak eta Ezkia kanta abesbatzak bat-bateko ikuskizunak eskaini baitzituzten bost gunetan.

Bilbotik etorritako Amaia, Gentzane, Haizea, Aida, Ane, Ariane, Laura, Arrate eta Sergiok primeran pasatu zuten alde batetik bestera ikuskizunekin gozatu eta parranda egiten. Bizkaitarrak izanik, Ibilaldia ere oso gogoko dute, "baina ikusi beharko da Kilometroakek gailentzen duen".

Done Jakue bidea ezagutarazteko asmoz, Amaia eta Unai erromesen arrokekin jantzita joan ziren Lezora. Begira gelditzen zitzaizen guztiei



Lezoko Bittor Goikoetxea, Maria, Ixiar, Iker eta Aitorrek 10.00ak aldean hasi zuten zirkuitua.



Ane, Garbiñe, Udane eta Irune garbiketa lanetan aritu ziren boluntario bezala.

ibilbidearen berri eman eta kamiseta bana oparitzen zieten Done Jakue bidea egitera gonbidatuz.

"ERABATEKO ARRAKASTA"

Milaka lagun eta milaka auto

Kilometroak 2010eko balorazioa egiteko momentuan, antolatzaileek "erabateko arrakastaz" hitz egin zuten. Alde batetik, "milaka eta milaka" parte hartzaile izan zirela jakinarazi zuten eta horren seinale, Renfeko zerbitzua "hainbatetan kolapsatu" egin zela ziurtatu zuten. Bestalde, autoentzako atondu ziren aparkalekuak "gainezka" egon zirela informatu zuten eta Pasaiako portuaren eremu zabalean zeuden aparkatzeko tokiak ere bete zirela azaldu zuten.

Bazkari garaian bi jangelak ere "gainezka" egon zirela esan zuten, salmentara atera zituzten txartel guztiak amaitu egin baitziren. Euskal Label postuan, berriz, txala erre zuten eta eskaini zituzten 2.550 ratioak eguerdirako amaitu ziren.



Unai eta Mainerrek Done Jakue bideari buruzko informazioa banatu zuten.



Ataundik etorritako talogileek arto opilak egiten eman zuten eguna.